


Euskal AEko eraikuntzako kostuak %1,3 igo ziren 2010eko urtarrilean aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2009ko urtarriletik 2010ekora) eraikuntzako kostuak %0,1 jaitsi dira.

2010eko urtarrilean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %1,3 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta urtarrileko urte arteko tasa %0,1 jaitsi zen, EUSTATen datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2010



(*) Gehikuntza urtarrilako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT

2010eko urtarrilean, lan-eskuaren kostua %2,0 igo zen; lehengaien kostuak, berriz, %1,1.

Urtarrilean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek goranzko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzaren atalean %1,0ko igoera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %1,6koa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran badira zenbait ezberdintasun: Etxegintzako lehengaien kostuak %1,2 jaitsi ziren; Obra zibilekoak, berriz, %1,7 igo.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean Petrolio-fintzea (%27,4) nabarmentzen da. Ondoko sektoreetan ere igo dira prezioak: Kautxu eta plastikoa (%0,5), Ura (%0,5) eta Material elektrikoa (%0,3). Urte artean (2009ko urtarriletik aurtengora) ondokoek izan dituzte prezio-murritzetak: Energia elektrikoa eta gasa (%-8,3), Zurgintza (%-4,9), Metalezko gaiak (%-2,6) eta Metalurgia (%-0,5).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA. 2010EKO URTARRILA

GOIBURUAK	INDIZEA	GEHIKUNTZAREN %		
	2005 = 100 Oinarria	Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	117,7	1,3	-0,1	1,3
ERAIKINAK	117,6	1,2	-0,6	1,2
OBRA ZIBILA	118,0	1,7	1,7	1,7
LEHENGAIEN KOSTUA	116,6	1,1	-0,6	1,1
ERAIKINAK	116,6	1,0	-1,2	1,0
OBRA ZIBILA	116,6	1,6	1,7	1,6
LAN-ESKUAREN KOSTUA	121,7	2,0	2,0	2,0

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp